

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Sopuertako Udala****Bake Epaille titularra eta ordezkoa izendatzeko deialdia**

Amaitu da udalerrri honetan bake-epaille titular eta ordezko izendatutakoen lau urteko aldia; hori dela eta, jakinarazten da iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita 15 egun balioduneko epea irekiko dela plaza huts horiek betetzeko eskaerak aurkezteko. Eskaera-orriak udaletxeko bulego orokorretan aurkeztu beharko dira, agiri hauekin batera:

- NANaren fotokopia.
- Legeak jasotzen dituen ezgaitasun-, bateraezintasun- edo debeku-zioetako batean ere sartuta ez dagoela adierazten duen aitortpena.

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Nazionalitate espainiarra izatea.
- 18 urte baino gehiago izatea.
- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102, 302, 303 eta 389. artikuluetan ezarritzen diren ezgaitasun-, bateraezintasun- eta debeku-zioetako batean ere sartuta ez egotea.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, Udalaren osoko bilkurak aukeratuko du hautagaia, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 103. artikuluekin eta 1995eko ekainaren 7ko Bake Epailerei buruzko Erregelamenduarekin bat etorritz.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, denek jakin dezaten.

Sopuertan, 2018ko apirilaren 19an.—Alkatea, Emilio Reina Laiseca



SOPUERTA KONTZEJUKO UDALA AYUNTAMIENTO DE SOPUERTA SOPUERTA BIZKAIA Registro General Erregistro Orokorra	
- 3 MAY 2018 Z.....	
Entrada-Sarrera	Salida - Irteera
Núm.:	Núm.:
Zkia.:	Zkia.: 1067

Núm.....

*****BANDOA*****

Emilio Reina Laiseca jaunak, Sopuertako Udaleko (Bizkaia) alkate-udalburuak,

JAKINARAZTEN DUT:

Udaleko Udalbatza Osoari dagokio udalerriko **bake-epaile titularra eta ordezkaria** hautatzea, bat etorritik Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluekin eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Araudiarekin.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2018ko apirilaren 30(e)ko 82 zenbakia) iragarkia argitaratu ondoren, **hamabost egun balioduneko** epea irekiko da, **argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita**, interesa duten eta lege-betekizunak betetzen dituzten guztiek eskaera egin diezaioten alkatetza honi, idatzi bidez.

BETEKIZUNAK:

- Bake-epaile izendatzeko ez da beharrezkoa zuzenbidean lizentzia izatea, aski da karrera judizialean sartzeko Botere Judizialaren Lege Organikoan ezarritako betekizunak betetzea; eginkizun judizialak gauzatzeko aurreikusita ez daudenak, jarduera profesionalak edo merkataritzakoak egitea izan ezik. Hortaz, aski da espainiarra eta adinez nagusia izatea eta eginkizun





Núm.....

Z.....

judiziala gauzatzeko fisikoki edo psikikoki desgaitua ez egotea.

- Ezingo dira bake-epaile izan honako hauek: dolozko delitua egiteagatik zigorra jaso dutenak, errehabilitazioa lortu ez badute; dolozko delitua egiteagatik auzipetu edo erruztatu direnak, absoluzioa lortu arte edo largespen-autoa eman arte; eta eskubide zibil guztiak aitortuta ez dituztenak. Bake-epailearen izendapenak lau urteko indarraldia izango du eta horren jurisdikzioa udal-barrutira mugatuko da.
- Eskatzailerik ez badago, Udalbatza Osoak modu askean hartuko du erabakia, eta Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiari jakinarazi beharko dio.

Honen berri ematen da guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

Sopuertan, 2018ko apirilaren ren 30(e)(a)n

ALKATEA



Izpta.- Emilio Reina Laiseca